

ZARAUZ 3X3 STREET BASKET I. ARGAZKI LEHIAKETA

1. GAIA: SASKIBALOAIA MALEKOIAN

3x3 lehiaketaren giroa islatzen duten argazkiak: partidaren gorabeherak, jokalariak, lagunak, familiakoak, malekoiko giroa...

2. PARTE HARTZAILEAK - ARGAZKIAK

16 urtetik gorakoek har dezakete parte. Parte-hartzaile bakoitzak 5 argazki bidal ditzake gehienez:

- Argazkiok serie bat osa dezakete edo solteak izan daitezke.
- Originalak behar dute izan eta 2009ko lehiaketan eginak.
- Koloretan edo zuri-beltzean

3. ARGAZKIAK BIDALTZEKO EPEA

Abuztuaren 24tik 27ra

4. NOLA ETA NORA BIDALI

- Posta elektronikoaren bidez helbide honetara: komunikazioa@zast.es
- JPEG formatuan
- Gutxieneko erresoluzioa: 300 pp. Zip edo rar formatuan konprimi daitezke.
- Argazki bakoitza zenbakituta egongo da: "1.JPEG", "2.JPEG"...
- Argazkiekin batera testu-fitxategi bat bidaliko da, honako datu hauek azalduta:
 - o Egilearen izen-abizenak
 - o Telefonoa eta posta elektronikoaren helbidea
 - o Argazki bakoitzaren izenburua, fitxategi-zenbakiari lotua

5. SARIAK

1. Saria: Javier Lucas argazki-dendak emandako 50 €-ko bale bat, 2 GB-ko pen drive bat eta argazkiaren 40x50 erreproduzio bat. Horretaz gain, Euskalduna Tabernan erakutsiko da urrian egingo den komiki-erakusketarekin batera.

2. Saria: Javier Lucas argazki-dendak emandako 25 €-ko bale bat, 2 GB-ko pen drive bat eta argazkiaren 40x50 erreproduzio bat. Horretaz gain, Euskalduna Tabernan erakutsiko da urrian egingo den komiki-erakusketarekin batera.

6. EPAIMAHAIA

Zasteko bi ordezkari eta Zarauzko argazkilari ezagun bat. Epaimahaikideen erabakia apelaezina izango da. Argazkien kalitatea, orijinaltasuna, sormen-lana eta gaiarekin duten lotura izango dira irizpideak ebazpena egiterakoan.

7. SARI BANAKETA

www.zast.es web gunearen bidez jakingo da irabazleen berri. Saridunei telefono edo posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaie.

8. ARGAZKI SARITUEN ERABILERAZ

Zarauzko Saskibaloitza Taldea (Zast) saritutako argazkien jabe izango da eta haiek erabiltzeko, erreproduzitzeko, erakusteko eta zabaltzeko eskubidea izango du, haien autoretza aipatuta.

Aurkezten diren argazkiekin erakusketa egiteko aukera izango du Zast-ek. Argazki-lehiaketan parte-hartzeak arauak onartu izana eskatzen du.